

UDALEI ZUZENDUTAKO JARRAIBIDEAK, HAUR ESKOLA BATEN SORRERA ETA ERAIKUNTZA PLANIFIKATZEKO

Prozesuaren faseak:

1. Ikastetxeak izanen duen edukiera planifikatzea

Udalak ikastetxeari dagozkion beharren azterketari eta eskaintzaren planifikazioari buruzko txosten bat prestatu beharko du, ondoko datuak jasoz:

- Eragin-gunea.
Ikastetxearen kokapena eta zein herri edo auzotatik etorriko diren izatekoak diren erabiltzaileak.
- Biztanleria datuak.
- Azken bost urteetako 0 eta 3 urte bitarteko biztanleen datuak eta eroldako datuak sartu behar dira, eta baita bilakaera demografikoari buruzko beste datu esanguratsu batzuk.
- 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikaspostu beharren betetze maila, herriko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan.
- 0-3 urtekoentzat ikaspostuak eskaini beharraren edo ikaspostu gehiagoren beharraren justifikazioa, eta lortu ahal den ikaspostu beharren betetze maila.

Beharren azterketari eta eskaintzaren planifikazioari buruzko txostena Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren Atalera igorriko da.

Aholkua emanen du: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atalak

Baliabideak:

- *Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikaspostu beharren azterketari eta eskaintzaren planifikazioari buruzko txostenaren eredia.*

2. Kokapena planifikatzea

- Behar diren metroak.
- Orube erabilgarriak.
- Dagoeneko existitzen diren eskola-instalazioak.

3. Ikastetxearen eraikuntza

- Kostua kalkulatzea.
- Obra hasteko eta erikitzeko epeak.

- Eraikuntzaren finantzaketa adostea.
- Funtzionalitate eta jasangarritasun irizpideekin diseinatzea.

Argibide gehiago: [Guía para proyectar y construir Escuelas Infantiles](#), Hezkuntza Ministerioa-EUKF, 2011

Aholkua emanen du: Hezkuntza Departamentuko Obren Atalak.

4. Ikastetxearen ekipamendua

Ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenago, udalak ikastetxearen beharrei egokitutako ekipamendu proiektu bat prestatu, lizitatu eta esleitu behar du

Aholkua emanen du: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atalak

Baliabideak:

- "[Oinarrizko ekipamendu orientagarria Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako](#)" agiria
- "Altzariz hornitzeko baldintza teknikoen agiriak prestatzeko orientabideak" eredia
- "Altzariz hornitzeko administrazio klausulen agiriak prestatzeko orientabideak" eredia

5. Langileen postuak betetzea.

Kudeaketa zuzena: Oposizio-lehiaketa

Zeharkako kudeaketa: Zerbitzua kontratatzeko baldintza agiria

Bi kasuetan batez beste lau hilabete behar izaten dira tramitatzeko.

Ikastetxearen antolaketa aurrez ikuste aldera, udalak lehiaketa deitu aurretik jakin behar du emanen zaion erabilera: ikastalde kopurua, ordutegiak, jantoki zerbitzua. Gomendagarria da ikasturtea hasi baino lau hilabete lehenago egitea.

Aholkua emanen du: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atalak

Baliabideak:

- *Kudeaketarako administrazio klausulen agiriak prestatzeko orientabideak.*
- *Kudeaketarako klausula teknikoen agiriak prestatzeko orientabideak*
- *Haur Hezkuntzarako hezitzaile lanpostuen deialdi publikorako gai multzo orientagarria.*

6. Ikasleak onartzea eta egutegia/ordutegia

Ikasleak onartzeko prozedura, oro har, martxoan hasiko da ([ikusi urteko araudia](#)).

Ikastetxearen egutegia eta ordutegia igorri behar dira, lanaldiaren modalitatea adieraziz, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, ekainaren 1a baino lehen.

7. Ikastetxeko kudeaketaren finantzaketa

Finantzaketa ereduak ekainaren 29ko 107/2010 Foru Aginduan ezartzen da.

Aholkua emanen du: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atalak

Baliabideak:

- [Haur eskolen finantzaketa ereduak.](#)

8. Haur eskola bat sortzeko prozeduraren tramitazioa.

Haur eskola martxan jarri baino sei hilabete lehenago hasi behar da. Kudeaketa errazte aldera, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren Atalak honako dokumentua jarri du entitate titularren eskura:

["Haur eskola bat sortzeko prozeduraren tramitazioa"](#)

*Aholkua emanen du: Kontratazioaren, Zerbitzu Osagarrien eta Koordinazio
Administratiboaren Atalak*

Harremanetarako telefonoak

- Obren Atala
Burutza: 848 426547
e-mail: jlasantm@navarra.es
- 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala
Burutza: 848 424803
e-mail: seccion.0a3.escuelasrurales@navarra.es
- Kontratazioaren, Zerbitzu Osagarrien eta Koordinazio Administratiboaren Atala
Tfno.: 848 426611
e-mail: mlaborsa@navarra.es